



ibil ald iak

Intxaurrondon

Ibilaldi literarioa
Intxaurrondon.

Koldo Izagireren eskutik

Azaroak 20
10:30
Kultur etxean



1. PEPE ARTOLA

Donostiko neskatxa gaztien aukera, 1884

2. GABRIEL ARESTI

Gazi : geza : gozo, 1967

3. GALIZIA PASEALEKUA / CASTELAOREN OROITARRIA
CASTELAO

Gauzak, 1924

ROSALIA DE CASTRO

Galiziako gazta, 1863.

Behin izan nuen iltze bat. 1880

4. GAZTELA KALEA

5. PEDRO MARI OTAÑO

Maisuari, 1903

Zazpiak bat, 1900

6. PEDRO AXULAR

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu..., 1643

7. GABRIEL CELAYA

Gazi gozo geza. Euskal Harria, 1967

8. BERNAT ETXEPARE

Kontrapas, 1545

Donostiko neskatxa gaztien aukera, 1884

Bertso berri batzuek nua kantatzera
egi batzuek klaro adiazitzera
arkiturikan orain hontarako era
nai det jende denari eman aditzera
Donostiko neskatxa gaztien aukera.

Donostiko neskatxak ditugu ikusten
lujo haundi harrokin nola diran jazten
irpurdi konkorrakin dirade ibiltzen
ez dute bada hoiek soldata asko hartzen
nondikan dute bada horrenbeste sortzen?

Batzuetan jantzi bat urratutzerako
egina dute beste bat trukatzeko
hoiek horren egoki erropak jazteko
ez dute diru gutxi behar erosteko
uste det dabiltzala gu harrapatzeko.

Inoiz ikusten dira neskatxa gaztiak
kamelluaren gisa konkorez betiak
ikustekuak dira hoiien koloriak
nahiago dute kanpoz egon dotoriak
nahiz arkitu barrendik plakiak botiak.

Elkartzen diranian neskatx bat edo bi
elkarrekin pasatzen dute ordu ta erdi
beti gezur kontatzen dirade elkarri
kontu hartuaz handik pasatzen danari
murmuratzen dakite mutil gazteari.

Asko ibiltzen dira señora moduan
horrelakuak asko dirade munduan
jazten dira egoki nahi duten lekuan
gero esaten dute harro momentuan:
"Jarri, nagusia, guztia kontuan".

Edoizein dendetara lasai joaten dira
ta soinak aukeratzen ibildutzen dira
nagusien kontura denok jazten dira
horrela beren ustez baliatzen dira
baina urte azkenian komeriak dira.

Zenbat komeri dira hementxe ageri
hara hoietako bat gertatua neri:
begira nengoala neskatzatxo bati
ipurditik zitzaion kozkor bat erori
nondikan sortu zuen kontrabandu hori?

Lehenguan naskatxa bat pasa zan ondotik
eta gelditu nitzan begira atzetik
zer modutakua zan ikustiagatik
oilarren gisa zeguen apaina kanpotik
baina etzeraman hark oinetan galtzetik.

Ezin fio liteke horrelakoakin
behar baino gehiago dabilkitenakin
ni behintzat ikaratzen naiz neska hoiekin
nahiago det mutilzahar gelditu behinepin
eta ez deskuidatu horlako batekin.

Hobe luteke hoiek pixka bat pentsatu
eta ez diru denak lujotan gastatu
nere opiniua orain zer dan aitu:
txit liso ibilita soldata juntatu
gero nahi baldin bada gizona topatu.

Gazi: geza : gozo, 1967

Lehen

euskera
putzu sakon eta ilun bat zen,
eta zuek denok, ordukook,
ur gazi bat atera zenuten handik
nekez.

Orain,

zuen birtutez, zuen indarrez,
euskera erreka laster baina pobre bat da,
eta guk,
zuen oinordekook,
ur geza bat ateracen dugu hemendik lasai.

Gero,

gure birtutez, gure indarrez,
euskera ixaso urdin eta zabal bat izanen da
eta ordukoek,
zuen eta gure oinordekoek,
ur gozo bat aterako dute handik oparo.

Lehen zuek,

Kardaberaz, Mendiburu, Haraneder, Duvoisin, Añibarro.

Orain gu,

Salbador Garmendia, Mikel Lasa, Domenike Peillen,

Jose Luis Alvarez Txillardegui, Juan San Martin Otsalar.

Gero?

Auskalo Jainkoak badakien.

Lehen: Gazi.

Orain: Geza.

Gero: Gozo.

Euskera ura bezalakoa da.

GALIZIA PASEALEKUA

(Cruzeiroan)

Gauzak
Castelao, 1926

Benito aita eta amaren umezurtz gelditu zenean, Ameriketarik ahaide bat etorri eta berekin eraman zuen.

Bidaia hasi bezperan mendirako bidea hartu zuen, eta han goian, tontorrean, txanpon bat gorde zuen. Hamabi urteko mutiko baten ideia sentimental bat izan zen.

Ondoren, panpa arjentinoetan zakur guztiak xaxatu zizkioten, artean biderik gabeko bakardadean bere burua gobernatzeko gai ez zela. Eta asko sufritu zuen gizonei aurpegi ematen ikasteko, negar egiteko gogoari eutsiz.

Bere izpirituaren zatiak bitarteko, Benitok zentzu berri bat lortu zuen, eta atsedunik gabe lanean, oso aberats egin zen. Ezkondu zen, haurrak jaio zitzaizkion eta lur arrotzean erroturik gelditu zen.

Bere bizitzeko kezkek ez zioten utzi oroimen sentimentalik edukitzen, eta hogeita hamar urte igaro ondoren itzuli ahal izan zuen Benitok lehenaldira. Une hartan malenkonia bularrean sartu zitzaion.

Bere haurtzaro alaiko zehaztasun ahaztuak gogoaren bazterretan bilatuz, mendi tontorrean gorderik utzi zuen txanponaz pentsatzen bukatzen zuen beti Benitok. Eta bere jaioterriko lekuak bisitatu gabe denbora gehiago iraun ezinik, itsasontzi batean sartu eta etorri zen lurrera.

Gure hizkuntzako hitz ahaztuek, goroldioak, garoek eta bidean aurkitzen zituen gauza guztiek pozez betetzen zioten bihotza. Mendi tontorrera iritsi zenean zoriontasunez egiten zuten distira bere begiek. Utzi zuen leku berean aurkitu zuen txanpona, eta ez dago munduan une hartako Benitoren pozaren aztarrik emango digun hitzik. Gero bere seme-alabekin alde egin zuen.

Orain Benitok txanpon bat dauka bere leontinan kateaturik eta malko bat bihotzeko itsulapikoan.

GALIZIAKO GAITA.

Rosalia de Castro, 1863

Galizia gaixoa, zure izena
ez bedi inoiz izan espainiarra
Espainia ahaztua da zutaz
izan arren, ai!, horren zilarra.

Laidoan jaioa bazina bezala
da zutaz Espainia lotsa.
Umea ukatzen duen amak
non du amaren bihotza.

Inork ez dizu eskua gozo
altxa zaitezen eskaintzen,
apalik ari zarela negarretan
malkoak ez inork xukatzen.

Galizia, ez duzu aberririk
bakarrik bizi zara ludian
alderrai doaz samaldaka
zure seme-alaba guztiak,

alfonbra berdean etzanik
zaude ilunik eta bakarra
esperantza eske itsasoari
Jainkoari eske esperantza.

Horregatik, festa giroan
gaitatxoa entzunik deiadarrez
hauxe esaten ahal dizut:
ez da kantuz ari, baizik negarrez.

BEHIN IZAN NUEN ILTZE BAT

Rosalia de castro, 1880

Behin izan nuen iltze bat
bihotzean iltzatua,
ez naiz oroitzen iltzea zen
urrez, burdinez edo maitez.
Besterik ez dakit, min,
min ematen zidala,

gau eta egun nintzen negarrez,
Pasioko Madalena.
Dena ahal duzun Jauna,
eskatu nion Jainkoari,
emadazu indar, kolpe batean
gabetzeko halako iltzez.
Jainkoak eman, eta atera,
baina... nork uste? Geroztik
ez dut oinazerik izan
minaren zantzurik ez,
besterik ez dakit, badudala
zer bat iltze zulo hartan,
baita... baita oinaze hartaz
ene Jainkoa, naizela minez!

Buztin hilkor honen arima
nor ulertuko ote du, Jauna?

Bartzelonan dago Unamuno 1903an. Hitzaldi bat ematera heldu da Ateneu Enciclopèdic Popularrera. Bide batez, Sagrada Familiako lanak bisitatu nahi ditu. Hala jakinarazi dio Joan Maragall poetari, eta honek katedraleko lanak zuzentzen dituen Antoni Gaudiri berari eman dio abisua. Gaudik baietz esan dio, pozik hartuko duela Don Migel Unamunoren bisita. Baina baldintza batekin...

MAISUARI. P M Otaño, 1903

Anaiak, poz gaitezen, badator eguna,
ta betiko dohatsu egingo gaituna:
utzi dezagun gure hizkuntza astuna,
yendien arterako balio eztuna...

Unamunoko Migel maisu yakintsuna,
ospetsu askok agur egiten dizuna,
euskal kanta goxoak sehaskan entzuna,
zer da ordea orain gertatzen zaizuna?

Guk nahi diogulako euskerari fidel,
ipinitzen diguzu bekozkoa goibel?
Asko dakizularik gaizki zaude, Migel,
ezin bihurtu leike amorrairik igel.

Ezagun da herritik urruti zaudena...
Ez da gaitza euskaldunak eskatzen dutena,
baizik... izan dedila ongi mundu dena,
ta utzi deigutela ostu zigutena.

Bilbaotik irtenda Salamancaraino...
Noraino joan zerade zu, Migel, noraino?
Gu etorriagatik beste munduraino
uste det alderago gaudela zu baino.

Edaririk onena zer da? Behazuna.
Hau da semiengandik, Amatxo kuttuna,
kainaberaren puntan hartu bihazuna,
ezagutu dezazun gure maitasuna.

ZAZPIAK BAT

Otaño, 1900

Zazpi ahizparen gai dan oihala ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko utzirikan, lau bestetik
guraizeakin berezi arren bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala zazpiak oihal batetik.

Oihaltzat hartu zagun euskera, guraizetzat Bidasoa,
ibai koxkor bat besterik ez da, hutsa balitz itsasoa:
elkarren hurbil daude zazpiak, muga deitzen da Pausoa,
zergatik izan behar ez degu famili bakar osoa?

Arbola baten zainetatikan sortzen diran landareak
bezela gera, Bidasoaren bi aldetako jendeak:
berdinak dira gure jatorri, ohiturak eta legeak,
Ama Euskerak magal berean hazitako senideak.

Ama Euskera! bere semeak gu Ameriketara zenbat
arkitzen geran! Ta urrutitik maiteago degu hanbat:
hemen ez dago Bidasoarik ta beste trabik han hainbat;
Ama maitea indartu dedin, bizi bedi Zazpiak Bat.

AXULAR PLAZA

"Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, franzeses, edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta, eta ez euskarak".

GABRIEL CELAYA PLAZA

Agustin Ibarrolaren eskulturei begiratu bat emanik eta Euskal Harria liburuko grabatuak ikusiz.

Gabriel Aresti:

"Nik ez dut euskera maite, nik euskera behar dut"

"Niretzat euskera premia bat da."

"Ene arimaren ogia euskara da."

GAZI GEZA GOZO Euskal Harria, 1967

LEHEN

euskera putzu sakon eta ilun bat zen,
eta zuek denok, ordukook,
ur gazi bat atera zenuten handik nezkez.

ORAIN

zuen birtutez, zuen indarrez,
euskera erreka laster baina pobre bat da,
eta guk, zuen oinordekook,
ur geza bat ateratzen dugu hemendik lasai.

GERO

gure birtutez, gure indarrez,
euskera itsaso urdin eta zabal bat izanen da,
eta ordukoek, zuen eta gure oinordekoek
ur gozo bat aterako dute handik oparo.

Lehen zuek,

Kardaberaz, Mendiburu, Haraneder, Duvoisin,
Añibarro.

Orain gu,

Xalbador Garmendia, Mikel Lasa,

Dominique Peillen, Jose Luis Alvarez Txillardegui,

Juan San Martin Otsalar.

Gero? Auskalo Jainkoak badakien!

Lehen gazi, orain geza, gero gozo.

Euskera ura bezalakoa da.

BERNAT ETXEPARE PLAZA

Kontrapas, 1545

Euskara,
jalgi hadi kanpora!

Garaziko herria
benedika dadila,
euskarari eman dio
behar duien tornua.

Euskara,
jalgi hadi plazara!

Bertze jendek uste zuten
ezin eskriba zaiteien;
orai dute forogatu
enganatu zirela.

Euskara,
jalgi hadi mundura!

Lengoajetan ohi hintzan
estimatze gutitan;
orai aldiz hik behar duk
ohorea orotan.
Euskara,
habil mundu guzira!

Bertzeak oro izan dira
bere goien gradora;
orai hura iganen da
bertze ororen gainera.

Euskara!

Baskoak orok preziatzen,
euskara ez jakin arren,
orok ikasiren dute
orai zer den euskara.

Euskara!

Oraidano egon bahiz
inprimitu bagerik,
hi engoitik ebiliren
mundu guzietarik.

Euskara!

Ezein ere lengoajerik
ez franzas ez berzerik
orai ez da erideiten
euskararen parerik.

Euskara,
jalgi hadi dantzara!



1960an Intxaurrondon zeuden baserriak 2002ko planoan kokatuta.
(F. Valledor eta Jabier Ormazabal. Haizpe taberna, 2002)